

Zer da EGK?

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) erakunde autonomoa da (zehazki zuzenbide publikoko entitatea) Eusko Legebiltzarrak 1986ko maiatzaren 27ko 6/1986 Legearen bitartez sortutakoa, zeinak gazteriarekin lotura duten gaiak lantzen dituzten 60 bat elkarteren topagune bezala funtzionatzen duen.

Zein zerbitzu eskaintzen ditu?

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) eginkizuna gazteok ditugun iritzi, proposamen, ideia eta beharrak biltzea da, ondoren EAEko erakunde publikoei helarazi eta gazteria murgiltzen duten plan edo proiektuetan eragina izateko. EGKren beste funtzio garrantzitsuenetako bat kontraste lana da, hain zuzen ere erakundeetan diseinatzen diren aipatutako politika publiko horiek pertsona gazteok bizi ditugun egoerei erantzuten dietela bermatzeko.

Helburua lortzeko asmoz, proiektuak burutzen ditugu, topaketak antolatu eta hainbat lantalde sortu EGK osatzen duten lar-arloetan: Enplegu eta Etxebizitza, Hezkuntza formala edo ez formala, Parte-hartze, Berdintasuna, Bakea eta Bizikidetzeta eta Komunikazioa. Dinamika hauetan edozein pertsona gazteak parte har dezake, kontseiluko erakunde bateko kide izan ala ez. Honela, lortutako informazio guztia aztertu eta antolatu egiten da asoziazio, hedabide, erakunde eta gizarteari modu dinamikoan (mahai-jokoak, bideoak, txostenak edo grafiko interaktiboak) aurkezteko.

Kontaktua

Beste edozer jakin nahi izanez gero, proposamenik egin nahi badiguzu edo besterik gabe ideiarekin bat helarazi, gurekin harremanetan jarri inolako zalantzarik gabe:

Ramiro de Maeztu, 15
Vitoria-Gasteiz
945 22 06 01

Autonomia, 44
Bilbo
94 443 61 43

Andia, 11 nagusia
Donostia
943 42 97 67

bizibaldintzak@egk.org
partehartze@egk.org

egk@egk.org
hezkuntza@egk.org
berdintasuna@egk.org

koordinatzaile@egk.org
komunika@egk.org
bakea@egk.org

Ondorengo sare sozialetan ere topa gaitzakezu:

